

PRESIDENTEA
Gentza Alamillo

AIARAKO UDALAK 2016ko URRIAREN 20an
EGINIKO OHIKO OSOKO BILERAREN AKTA.

ZINEGOTZIAK

Iñigo Pinedo
José Antonio Bartolomé
Montse Angulo
Susana Martín
Lauren Uria
Esteban Hernando
Nerea Goti
Iraida Saenz de Lafuente

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hamaseiko urriaren 20an, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko bilera egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, behar bezala deituta, Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik. Neuk, Naiara Lazpita Marcos idazkari andreak, lagundu ditut.

BERTARATU EZ

DIRENAK

Josu Artetxe
Iratxe Parro

IDAZKARITZA

Naiara Lazpita

Alkate jaunak ongietorria eman die osoko bilkurako guztiei, eta besterik aipatu gabe eguneko aztergaien zerrendako gaiak bozkatu eta eztabaidatu dira:

1º.- 1.- Onestea, bidezkoa bada, 2016ko irailaren 22an eginiko ohiko osoko bilkuraren akta.

Iraida andreak (AB) esan du aztergaien zerrendako 5. puntuan, abuztuaren 29ko ezohiko bilkuraren akta onesteari buruzkoan, bera egon ez zela gehitu behar dela.

Iñigo jauna ere ez zen egon; ondorioz, aktaren 5. puntua aldatu egingo da, bi pertsona horiek falta zirela gehitzeko.

Nerea andreak (BILDU) adierazi du Etxaurren Ikastolako Guraso Elkartearekin adostutako hitzarmena onesten den aztergaien zerrendako puntuan ez dela jaso Bilduk hitzarmenaren aldeko botoa eman zuela, baldintza honekin: adierazitako zenbatekoak aldatzea. Izan ere, zenbatekoen aldaketa azaltzen zuen mezu elektronikoa bat igorri zen, baina mezu hori ez zen osoko bilkura egin aurretik iritsi.

Inork beste ezer esan ez duenez, akta onetsi egin da.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren artean eginiko lankidetzaren hitzarmena, hain zuzen ere, Arespalditzan dagoen EALZ 2016. urtean kudeatzeko eta mantentzeko.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena, Arespalditzako Landa-eremuko Eguneko Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2016).

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 11n emaniko aldeko txostena.

Udalbatzak, aho batez, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Alday Ongintzako Fundazioaren arteko lankidetzahitzarmena, Arespalditzako Landa-eremuko Eguneko Arreta Zentroa kudeatzeko eta mantentzeko (2016).

Bigarrena.- Aiarako Udaleko alkateari eskumena ematea aipatu hitzarmena sinatzeko.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Alday Ongintzako Fundazioari, eta hitzarmenaren bi kopia eranstea, horietako bat behar bezala sinatuta aurkez dezan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Udalaren eta Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxearen arteko lankidetzahitzarmena (2016).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Menagaraiko Amor Misericordioso ikastetxeak bere zentroan hartutako neska ikasleekin egiten duen eginkizun soziala eta Udalak lan hori sustatzeko duen interesa.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzahitzarmena, hain zuzen ere, aipatu zentroak bere neska ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna eta Immigrazioa Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 11n emaniko aldeko txostena.

Korporazioak, aho batez, hau **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalak Amor Misericordioso ikastetxearekin eginiko lankidetzahitzarmena, hain zuzen ere, 2016. urtean aipatu zentroak bere ikasleekin abiarazten dituen ekimenak eta ekintzak diruz laguntzeko.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Amor Misericordioso ikastetxeari. Hitzarmenaren bi kopia erantsiko dira, aleetako bat behar bezala sinatuta itzul dezan.

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Etxaurreneko Lagunak kultur elkartearen arteko lankidetzahitzarmena (2016).

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak sustatu eta babestu nahi dituela udalerrian antolatzen diren kultura- eta jai-adierazpenak.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmenaren xedea dela Etxaurreneko ermitaren inguruan irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea.

IKUSI DA.- Euskara, Hezkuntza, Kultura, Kirolak eta Gazteria Informazio Batzordeak 2016ko urriaren 11n emandako aldeko irizpena.

Korporazioak, aho batez, hau **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Onestea Aiarako Udalaren eta Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak elkartearen arteko lankidetzeta-hitzarmena, Etxaurreneko ermitaren ondoan irailean antolatzen diren jaiak sustatu eta indartzea xedea duena, 2016 ekitaldian.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari ahalmena ematea, hitzarmena sina dezan.

Hirugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea Asociación Cultural Amigos de Etxaurren-Etxaurreneko Lagunak elkarteari; halaber, hitzarmenaren bi ale helaraziko zaizkio, horietako bat behar bezala sinatua itzul dezan.

5.- Onestea, bidezkoa bada, “Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko” obraren lehenengo ziurtagiria. Horren zenbatekoa 115.819,19 € da (BEZa barne).

Iraida andreak (AB) galdetu du ea noiz aurreikusten den ikastolako obra hori amaitzea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio hil honetako 25ean amaitzea aurreikusten dela.

Ez da beste oharrik egin; beraz, gaia bozkatu dute. Hala, korporazioko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

AINTZAT HARTU DA.- 2016ko abuztuaren 2ko 295/16 Alkatetza Dekretuaren bitartez LEZIAGA 1995 CONSTRUCCIONES SL enpresari esleitu zitzaiola “Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko” obra exekutatzeko kontratua. Kontratu horren zenbatekoa 163.347,00 euro gehi dagokion BEZa da, hau da, guztira, 197.649,87 euro.

IKUSI DA.- Aurkeztutako lehenengo ziurtagiria. Horren zenbatekoa 115.819,19 eurokoa da (BEZa barne).

AINTZAT HARTU DA.- Obra-zuzendari Iván Manjón Borregón jaunak igorritako oniritzia.

Korporazioak, aho batez, hau **EBATZI DU:**

LEHENENGOA.- Onestea "Etxaurren Ikastola konpontzeko eta aldatzeko" obraren lehenengo ziurtagiria (horren zenbatekoa 115.819,19 € da, BEZa barne), eta aipatu gastua baimentzea.

BIGARRENA.- Udalaren diruzaintzari agintzea 115.819,19 € ordaintzeko Leziaga 1995 Construcciones SL enpresari.

6.- Onestea, bidezkoa bada, Comercial de Limpieza Villar SA enpresari dagokion zenbatekoa ordaintzea, hiru garbitzaileri zor zaizkien zenbatekoak ordaindu ditzan, garbiketa-zerbitzuaren aurreko enpresa esleipendunak (Gurbisa) ez baitzituen hiru langile horien soldatak ordaindu. Horren aurretik, alderdien arteko adostasuna beharko da, eta ordainketa Gurbisak behin betiko fidantzan gisa jarri zuen zenbatekotik egingo da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) esan du bere taldearen iritziz langile horiek zegokien lana egin zutela eta, beraz, bidezkoa dela zor zaiena ordaintzea.

Iraida andreak (AB) esan du bere taldea ere iritzi berekoa dela; lana egin zuten eta, ondorioz, soldata jaso behar dute.

Lauren jaunak (BILDU) gehitu du bere taldea ados dagoela.

Idazkari kontu-hartzaileak dagozkion lege-ohartarazpenak egin ditu, aurrez Udaltzako kide guztiei eman zaien txostenean bildutakoari jarraikiz.

Ez da gaiari buruzko ezer esan eta bozketa egin da. Udaltzako Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide, eta

IKUSI DA.- Hiru garbitzailek aurkeztutako eskaera; bertan adierazten da Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak, 2013ko azaroaren 17ra arte garbiketa-zerbitzuaren esleipenduna zenak, hainbat hilabetez ez ziela garbitzaileei zegokien soldata ordaindu, eta orain garbitzaileek zenbateko hori ordaintzea eskatzen dute.

IKUSI DA.- Lau garbitzailek ematen zutela garbiketa-zerbitzua eta langile horiek zegokien zeregin guztiak egin zituztela Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresa esleipenduna izan zen hilabete guztietan; garbitzaileek baina, hainbat hilabetez ez zuten soldatarik jaso.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak, ikusirik Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresa konkurtsoan zegoela eta ez zituela langileekiko betebeharrak betetzen, bertan behera utzi zuen enpresa horrek zuen zerbitzuen kontratua. Jarraian, zegokion irizpidea egin ondoren, berriz ere esleitu zuen zerbitzua, hain zuzen ere Comercial de Limpiezas Villar SA enpresari. Enpresa horrek langileak subrogatu zituen, 2013ko azaroaren 18tik aurrera zenbatzen hasita.

IKUSI DA.- Langileetako batek judizialki eskatu zuela Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak ordaindu gabeko soldaten ordainketa, eta Bilboko Lan-arloko 17 zenbakiko Epaitegiak 2014ko apirilaren 30ean emandako epaiaren bitartez, Comercial de Limpiezas Villar SA enpresa solidarioki kondenatu zuten, Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresarekin batera, zor ziren zenbatekoak gehi interesak eta kostuak ordaintzera, ulertzen baitzen enpresa bat bestearen ondorengo zela esleipen horretan, kontratu horrek bigarren esleipenduna behartzen baitzuen aurreko kontratuko langileak subrogatzera.

IKUSI DA.- Comercial Limpiezas Villar SA enpresak aipatu langileari ordaindu ziola Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak zor zion guztia, gehi interesak. Hala, Aiarako Udalak Comercial Limpiezas Villar SA enpresari ordaindu zion enpresak langileari ordaindutako guztia, enpresa horri udal-eraikinak garbitzeko zerbitzuaren kontratua esleitzeko baldintzak biltzen zituen pleguaren 14. klausula betez. Udalak diru hori Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak, jatorrizko zerbitzuaren esleipendun gisa, jarri zuen behin betiko fidantzatik hartu zuen, fidantza hori bahitu egin baitzuen Udalak.

AINTZAT HARTU DA.- Aiarako Udalak bahitu egin zuela Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak, eraikinak garbitzeko zerbitzua esleitu zitzaioela eta, jarri zuen behin betiko fidantza. Fidantzaren zenbateko osoa 29.040 eurokoa zen, eta horietatik 4.622,94 euro erabili dira Comercial de Limpiezas Villar SA enpresari aipatu zenbatekoak ordaintzeko. Ondorioz, Aiarako Udalak aipatu behin betiko fidantza horren 24-417,06 euro ditu oraindik ere.

AINTZAT HARTU DA.- Gainerako hiru langileek ere judizialki eskatu dutela zor zaien zenbatekoa ordaintzeko (Fogasak ordaindu ez duen zatia).

AINTZAT HARTU DA.- EAeko Justizia Auzitegi Goreneko Gizarte-gaietarako Aretoak, 2016ko martxoaren 22an, Comercial de Limpiezas Villar SA enpresak aipatu langileei aurreko esleipendunak zor zituen zenbatekoak ordaintzearen kontrako erabakia hartu duela.

AINTZAT HARTU DA.- Udal honek uste duela justizia materiala lortzeko noizean behin zerbitzuak eskaini dituzten langileek dagozkien soldatak eta aplika daitezkeen interesak jaso beharko lituzketela. Eta are gehiago, ezin dela langileekin desberdin jokatu, batek zor zitzaizkion zenbatekoak jasotzeko eskubidea izan baitzuen eta gainerako langileei ez baitzikiete eskatutako zenbatekoak ordaindu.

HONAKO HAU GERTATU DA.- Udal honek Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak jarritako behin betiko fidantzaren 24.417,06 ditu, fidantza hori bahitu zuelako. Zenbateko hori nahikoa da Comercial de Limpiezas Villar SA enpresari ordaintzeko, enpresa horrek langileei dagozkien zenbatekoak gehi interesak ordaindu ahal izateko. Beraz, kalteordain hori ordaintzeak ez luke inolaz ere Udalaren diru-kutxa kaltetuko.

IKUSI DA.- Idazkari kontu-hartzaileak 2016ko urriaren 17an eginiko txostena.

Hala, Udalbatza honek, aho batez, hau **EBATZI DU**:

Lehenengoa.- COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari jakinaraztea Aiarako Udalak ordainduko dituela Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak ordaindu beharreko kalte-ordainak, oraindik ordainketarik jaso ez duten hiru langileei zor zaiena ordaintze aldera. Ordainketa hori Gurbisa Servicios Auxiliares SL enpresak jarritako behin betiko fidantzaren kargura egingo da. Langileei zor zaien zenbatekoei legediaren arabera interesak gehitu beharko zaizkie. Horren aurretik, alderdien arteko akordioa lortu beharko da, eta zenbatekoa, gehienez ere, bahitutako fidantzatik erabili gabe dagoen zenbatekoa (24.417,06 €) izango da.

Bigarrena.- Erabaki honen berri ematea langile interesdunei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkion ondorioak izan ditzan.

7.- Aldatzea, bidezkoa bada, Aiara udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua, kontratuaren xedea handitu delako eta hemendik aurrera

Arespalditzako Administrazio Batzordearen lokal bat ere barne hartuko duelako. Kontratu horren esleipenduna Comercial de Limpiezas Villar SA enpresa da.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) aipatu du Arespalditzako Administrazio Batzordeari eskatu diotela Udalak erabiltzeko lokal bat uzteko, Gizarte Egoitzan. Lokal hori ikastaro batzuk egiteko erabiliko dute, ludoteka txikiegia baita. Ondorioz, lokal hori ere garbiketa-kontratuan sartu behar da.

Ez da gaiari buruzko beste ezer esan eta bozketa egin da. Udalbatza Osoko kideek aho batez onetsi dute.

Eta hori dela bide,

HONAKO HAU GERTATU DA.- 2016ko uztailaren 15eko 267/16 zenbakiko Alkatetza Dekretuaren bitartez, Udalbatzak eskuordetuta, Aiara udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua prozedura irekiaren bitartez esleitu zitzaion COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari, urteko 120.453,90 euroan (BEZa barne), lau urterako; kontratu hori beste bi urtez luza zitekeen, alderdien artean hala egitea adostuz gero.

AINTZAT HARTU DA.- Hilabete igaro dela zerbitzu berria, baldintza berriekin, martxan jarri zenetik, eta une honetan Arespalditzako Administrazio Batzordearen beste lokal bat ere garbitzen hasi behar dela, lokal hori Udalaren ikastaro edo tailer bat emateko erabiltzen ari direlako.

AINTZAT HARTU DIRA.- Kontratuaren baldintza tekniko eta ekonomikoak eta eskatutako zerbitzuaren irismena; hain zuzen ere, hamabostean behin (hilean bitan) ordubetez garbitu beharko dira Arespalditzako Administrazio Batzordearen erabilera anitzeko eraikineko edo eraikin sozialeko beheko solairuko aretoa eta solairu horretako bainugela.

Zerbitzu horri dagokion orduko zenbatekoa xede nagusi gisa garbiketa-zerbitzua eskaintzeko kontratuan ageri dena izango da, enpresak lizitazioa egin zen unean eskaini zuen moduan, hau da, 15 euro orduko gehi horri dagokion BEZa. Ondorioz, aldaketa honen urteko zenbateko osoa 240 euro gehi BEZari dagozkion 50,4 euro da. (290,40 € guztira).

IKUSI DA.- Kontratu hori arautzen duten baldintza teknikoen pleguen 17.13 klausula, eta kontuan hartu da aldaketa honek ez duela gainditzen kontratuaren urteko zenbatekoaren % 10a.

IKUSI DA.- Indarrean dagoen aurrekontuko 337.227.016 aurrekontu-aplikazioan nahikoa kreditu dagoela lotura-mailan.

IKUSI DIRA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legeak (apirilaren 2ko 7/1985) Udalbatza Osoari ematen dizkion eskumenak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeari (urriaren 30eko 30/2007) dagokionez.

Udalbatza Osoak aho batez hau **EBATZI DU:**

Lehenengoa.- Aiara udalerriko eraikin publikoak garbitzeko zerbitzuaren kontratua, COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari esleitu zitzaiona eta 2016ko uztailaren 15ean egin zena, aldatzea, kontratuaren xedea handitu delako. Hala, hemendik aurrera Administrazio Batzordearen lokalak ere kontratuan sartuko dira, hain zuzen ere Arespalditzako

Administrazio Batzordearen erabilera anitzeko eraikineko edo eraikin sozialeko beheko solairuko aretoa eta solairu horretako bainugela. Lokal horiek hilean bitan garbitu beharko dira, ordubetez, urritik maiatzera, kontratu hau indarrean dagoen urteetan.

Bigarrena.- Aipatu kontratuan esleitutako prezioak mantenduko dira; ondorioz, xede-aldaketa horren eraginez prezioa igo egingo da, urtean 290,40 € gehiago (BEZa barne).

Hirugarrena.- Kontratuaren aldaketa hori 1. eranskina sinatzen den egunaren biharamunetik aurrera egongo da indarrean, eta aldatzen den kontratua bukatzen denean iraungiko da, balizko luzapenak ere kontuan hartuta.

Laugarrena.- COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari jakinaraztea Aiarako Udalean jarri beharreko behin betiko bermearen zenbatekoari 12 euro gehitu beharko dizkiola (prezioaren gorakadaren % 5, BEZik gabe).

Bosgarrena.- Alkate udalburuari eskumena ematea kontratuaren aldaketa hau formalizatzeko sinatu behar diren agiriak sina ditzan.

Seigarrena.- Erabaki hau jakinaraztea COMERCIAL DE LIMPIEZAS VILLAR SA enpresari, jakitun egon dadin, eta adieraztea erabaki honen aurka birjarpen errekurtsua aurkeztu ahal izango dela Udalaren aurrean, jakinarazpen jasotzen den egunetik zenbatzen hasita eta hilabeteko epean edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua Administrazioarekiko Auzien Vitoria-Gasteizeko Epaitegiaren aurrean.

8.- Udalbatza osoari berri ematea Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz organo kontu-hartzaileak egindako txostenaren, diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoa.

IKUSI DA.- 2015. urteko likidazioak gastu-partidak sortzeko edo daudenak handitzeko, nahitaezkoak diren 2017. urteko aurrekontura itxaron ezin duten ordainketak egiteko, ateratako diruzaintzako gerakinen zati bat gastu orokorrak ordaintzeko erabiltzeko beharra.

IKUSI DA.- 2016ko urriaren 17ko idazkari kontu-hartzailearen txostena, gastuak gastu orokorretarako diruzaintzaren gerakinaren bidez finantzatzean egonkortasuna betetzearen ondorioei buruzkoa.

AINTZAT HARTU DA.- Abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauko 7.1 eta 7.3 artikulua, 17/2014 Foru Arauak emandako Aurrekontu eta Finantza Egonkortasunari buruzkoa.

Udalbatza osoak Aurrekontu Egonkortasuna ez betetzearen ondorioz 2016ko urriaren 17an organo kontu-hartzaileak egin duen txostenaren, Diruzaintzaren gerakinaren erabilerari buruzkoaren, berri du.

9.- Honako hauen berri ematea: kontaketa-aktak, gastuen eta sarreraren balantzea, libreten egoera eta 2016ko ekaineko, uztailleko eta abuztuko kredituen aldaketak.

Udalbatzako kideak jakinaren gainean gelditu dira.

10º.- Alkatetza Dekretu hauen berri ematea:

- **Erref: 381/16.- Llanteno Administrazio Batza.-** Argiteria publikoaren eta gasaren gastua finantzatzeko diru-laguntza ematea.
- **Erref: 382/16.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondo udalerriko La Torre kalean hirigintza- eta azpiegiturailanak egiteko.
- **Erref: 383/16.- Luiaondoko Administrazio Batzordea.-** Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondo udalerriko Estartako kalean hirigintza- eta azpiegiturailanak egiteko.
- **Erref: 384/16.** Baimena ematea “Retes de Llanteno udalerriko propano gasaren aireko biltokia” izeneko jardueraren titulartasuna, Repsol Butano SA enpresaren esku zegoena, EDP NATURGAS ENERGÍA enpresari eskualdatzeko.
- **Erref: 385/16.- Santiago Apostol erretiratuen elkartea.-** 2016. urteko diru-laguntza ematea, jarduerak egiteko, eta lehenengo ordainketa (% 90) egitea.
- **Erref: 186/16.- E.C.B.-** Olabezarren eraikitako etxebizitza lehenengo aldiz okupatzeari buruzko espedientea osatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref: 387/16.- J.I.A.-** Murgan zaharberitutako eraikina okupatzeko lizentziari buruzko espedientea osatzeko agiriak eskatzea.
- **Erref: 388/16.- JR.S.E.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref: 389/16.- JA.C.C.-** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref: 390/16.- JM.B.S.** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref: 391/16.- KIROLGEST SL.-** 2014.-2016. urteetan ikastaroak eskaintzeko kontratuari dagokion fidantza itzultzea.
- **Erref: 392/16.- KIROLGEST SL.-** Ikastaroak emateko kontraturako kontratista hautatzea.
- **Erref: 393/16.- Zuazako Administrazio Batzordea.-** Fidantza eskatzea, Zuazako “Kontzejuaren etxea handitzeko eta berritzeko, eta ingurunea egokitzeko” eraiste- eta eraikitze-obrek eragindako hondakinak behar bezala kudeatzen direla ziurtatzeko.
- **Erref: 394/16.- C.C.D.-** Udal-igerilekuko kalteak direla eta egindako erreklamazioa ez onartzea.
- **Erref: 395/16.-** Bitarteko funtzionario bat izendatzea, seme-alabak zaintzeko eszedentzia hartu duen funtzionarioa ordezkatzeko.
- **Erref: 396/16.- J.Mª.E.S.-** Taxi-lizentziaren titulartasunaren eskualdatzea ukatzea.
- **Erref: 397/16.-** Luiaondon farmaziako botika-kutxa jartzeko etxola birgaitzeko lanak exekutatzeko proiektua onestea.

- **Erref: 398/16.- Zuazako Administrazio Batzordea.-** Udal-baimena ematea, Kontzejuaren etxea handitzeko eta berritzeko, eta ingurunea egokitzeko, obrak abiarazteko.
- **Erref: 399/16.- Zuazako Administrazio Batzordea.-** Zuazan dagoen eraikineko Zentro Soziala eta bilera-gunearen jarduera handitzeko eta legeztatzeako jardueraren aurreko jakinarazpena.
- **Erref: 400/16.- M.T.S.G.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenoko baserri bat barrutik zaharbertitzeko.
- **Erref: 401/16.- M.T.M.B.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Llantenon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref: 402/16.- Onestea F/2016/10 zenbakiko fakturen kontabilitate-zerrenda.**
- **Erref: 403/16.-** Hirigintza planeko tresnak idazteari dagozkion ordainsariak finantzatzeko diru-laguntza eskatzea.
- **Erref: 404/16.- J.P.D.B.-** Llantenoko partzela bateko obrak geldiarazteko agintzea eta nahasitako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea abiaraztea; izan ere, lurra mugitzeko esku-hartze bat exekutatu zen eta, horren ondorioz, betegarri eta landare-estalki falta dago bertan. Esku-hartzea udalaren aurretiko eta nahitaezko lizentziarik gabe egin zen.
- **Erref: 405/16.- Izoriako Administrazio Batzordea.-** Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, Izoriako Ibarra eta Batiturta bideetan hesiak jartzeko.
- **Erref: 406/16.- Izoriako Administrazio Batzordea.-** Obrak egiteko udal-lizentzia ematea, Izoriako Ibarra eta Batiturta bideetan trangoak konpontzeko, sareak jartzeko eta arekak konpontzeko.
- **Erref: 407/16.- KIROLGEST SL.-** Ikastaroak emateko zerbitzuaren kontratua esleitzea.
- **Erref: 408/16.- M.F.B.-** Egindako eraisketa partziala legeztatzea eta obrarako udal-lizentzia ematea Arespalditza udalerriko 3. poligonoko 418 partzelan dagoen baserria guztiz eraisteko.
- **Erref: 409/16.- J.M.J.A.-** Agiri gehiago aurkez ditzala eskatzea, Olabezarren dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko obrarako udal-lizentziari dagokion espedienterako.
- **Erref: 410/16.- G.O.T.-** Obrak geldiarazteko agindua ematea eta espedientea abiaraztea, hirigintza-ordena berriz ezartzeko, Arespalditzan dagoen partzela batean, lurra eta betegarria mugitzeko obrak direla eta, ordena hori oztopatu baitzen.
- **Erref: 411/16.- Naturgas Energía Distribución SAU.-** Lurzorua okupatzeagatiko tasa likidatzea (2016ko 3. hiruhilekoa).
- **Erref: 412/16.- U.Z.O.-** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.
- **Erref: 413/16.- JR.L.E.-** 2016ko Ibilgailuen gaineko Udaleko Zerga dela eta ordaindutako zenbatekoaren zati proportzionala bueltatzeko emakida, turismoari behin betiko baja emateagatik.

- **Erref: 414/16.- A.L.A.-** Horma zatika eraisteko eta berriz eraikitzeko obrak aurretiko obrarako lizentziarik gabe egitearen ondorioz oztopatutako hirigintza-ordena berrezartzeko espedientea ebaztea.
- **Erref: 415/16.- M.A.P.-** Txakurra inskribatzea arriskutsuak izan daitezkeen txakurren erregistroan.
- **Erref: 416/16.-** Alkatetzak 3/2016 kredituak gaitzeko espedientea.
- **Erref: 417/16 J.S.M.D.-** 5. poligonoko 575. partzelako lurak betetzeko obrak direla eta, hirigintza-ordena berriz ezartzeko espedientea ebaztea.
- **Erref: 418/16.- Zorroza Gestión SL.-** Lehenengo isun hertsatzailea jartzea prebentziozko kontrol-neurriak hartzeko agindua ez betetzeagatik, larritasuna eta segurtasun-arrazoiak direla eta. Neurri horiek 292/2016 Dekretuaren bidez ezarri ziren.
- **Erref.: 419/16 J.L.A.J.-** Obrarako udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitza bateko estalkia konpontzeko.
- **Erref: 420/16.- G.M.D.J.-** Udal-lizentzia ematea, Luiaondon dagoen etxebizitza okupatzeko, etxebizitza hori berritzeko obrak egin ondoren.
- **Erref: 421/16 .-EDP Comercializadora, SAU.-** Lurzorua okupatzeagatik tasa likidatzea (2016ko 3. hiruilekoa), kontzeptua: **argindarra eta gasa.**

- Iraida andreak (AB) 396/16 Dekretuari buruz galdetu du, zeri egiten dion erreferentzia jakiteko.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio Aiarako taxi-lizentziaren titularrak eskatu duela lizentzia horren titulartasuna bere ezkontideari emateko. Hala ere, araudia berrikusi da eta jakinarazi zaio hori ezinezkoa dela; izan ere, proposatutako pertsona ez dago udalerrian erroldatuta, eta ordenantzak ezartzen du gutxienez bi urtez egon behar dela udalerrian erroldatuta.

- Esteban jaunak (BILDU) 404/16 Dekretuari dagokionez esan du interesdunek alegazioak egin dituztela ikusi duela. Gehitu du bere ustez interesgarria izango litzatekeela Aldundia bertaratzea eta horri buruzko txosten bat egitea, iraganean Aldundia arduratu baitzen kasu horretaz.

- Esteban jaunak, 414/16 Dekretuari dagokionez, gogorarazi du bere garaian lurak eman zirela, Administrazio Batzordearen onurarako. Komenigarria litzateke hormaren jabeak eta Administrazio Batzordeak esateko dutena entzutea.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du salaketa bat egon dela eta Udaleko teknikariak zegokion txosten teknikoa egin duela, antzeko kasuetan egin izan den moduan.

Lauren jaunak (BILDU) gehitu du esan nahi zuen gauza bakarra zela kasu horren inguruko ezohiko egoera kontuan hartu behar dela, besterik ez.

Gentza jaunak esan du hormari buruzko salaketa bat dagoela, Administrazio Batzordearekin hitz egingo dutela eta Udaleko araudia kontsultatuko dutela, zer egin daitekeen ikusteko; dena den, araudiak esaten duena errespetatu behar da.

- **Eguneko aztergaien zerrendako gainerako puntuekin jarraitu aurretik, alkateak proposatu du honako bi puntu hauek premiaz sartzea Eguneko Aztergaien Zerrendan:**

Lehenengoa, kreditu gehigarria onestea Arabako Foru Aldundiaren obra txikiak diruz laguntzeko programaren bitartez finantzaketarik jaso ez duen Luiaondoko 1540. partzelako obraren zatia finantzatzeko. Gentza jaunak adierazi du hori premiaz egin behar dela obra ahalik eta lasterren esleitu behar delako; izan ere, azaroa baino lehen bukatu behar da obra.

Lehenengo eta behin premia bozkatu behar da, puntu hori Eguneko Aztergaien Zerrendan sartzeko. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela eta, honako puntu hau gehitu da:

11.- Onestea, bidezkoa bada, 5-2016 bilkurako kreditu gehigarria.

IKUSI DA.- Diruzaintzako soberakinaren zati bat erabili behar dela, Gastu Orokorrak atalekoa eta 2015eko likidazioak emandakoa. Xedea da gastuen partida bat sortzea ezinbesteko ordainketak ordaintzeko, eta ezin delako 2017ko aurrekontua egin arte itxaron.

IKUSI DA.- Kontu-hartzaileak 2016ko urriaren 17an eginiko txostena, aurrekontu-egonkortasuna ez betetzeari buruzkoa, abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan (17/2014 Foru Arauak Aldatzen duena) jasotakoari jarraituz (Arabako tokiko erakundeen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzkoa). Txosten hori Udalbatzari erakutsi zaio kreditu aldaketa honekin batera, jakinaren gainean egoteko.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalbatzak, aho batez, honako **ERABAKI** hau hartu du:

Lehenengoa.- Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:

PARTIDA	IZENDAPENA	ZENBATEKOA
		€
171.601.006	LUIAONDOKO 1540. PARTZELA EGOKITZEA ETA EKIPATZEA	8.295,84 €

GUZTIRA: 8.295,84 €

Zenbateko hori ondoren zerrendatzen diren baliabideekin finantzatuko da; beraz, espedientea orekatuta dago eta ez da defizitik sortzen:

<u>DIRU-SARREREN PARTIDA</u>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKOA (€)</u>
87001	DIRUZAINZAREN SOBERAKINA GASTU OROKORRETARAKO	8.295,84 €

Onetsitako kreditu gehigarrien zenbateko osoa finantzatzeko erabiltzen diren diru-sarrerara guztien parekoa da.

Bigarrena.- Kontu-hartzaileak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketon eragina berehalakoa izan dadila.

- **Alkatetzak Osoko Bilkura honetan, eguneko aztergaien zerrendatik kanpo, lantzea proposatu duen puntua hau da: kreditu-konpromisoa bat onestea “Luiaondoko 3. poligonoko 1333. partzelan erabilera publikorako jarduketak” izeneko obra finantzatzeko, obra hori esleitu egin behar baita. Horretarako, beharrezkoa da Finantza Plana onestea, gero Arabako Foru Aldundiak onetsi dezan.**

Lehenengo eta behin premia bozkatu behar da, puntu hori Eguneko Aztergaien Zerrendan sartzeko. Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute.

Hori dela eta, honako puntu hau gehitu da:

12.- Onestea, bidezkoa bada, 2016 ekitaldirako kreditu-konpromisoa, “Luiaondoko 3. poligonoko 1333. partzelan erabilera publikorako jarduketak” egiteko obrak finantzatzeko, bai eta obraren Finantza Plana ere.

IKUSI DA.- Udal honek “Luiaondoko 3. poligonoko 1333. partzelan erabilera publikorako jarduketak” egiteko obrei ekin nahi diela. Obra horren zenbatekoa, guztira, 153.862,99 € da (BEZa barne).

IKUSI DA.- Udalak diru-laguntza eskatu diola Arabako Foru Aldundiari, zehazki, Obren eta Zerbitzuen Foru Planaren Programari. Aldundiak jakinarazi du proiektua onetsi duela eta diru-laguntza emango duela; horren zenbatekoa, behin-behinean, 94.728,03 €-koa da, obra esleitzen den bitartean.

IKUSI DA.- Udalak obra hori bera egiteko diru-laguntza eskatu diola Eusko Jaurlaritzari, baina oraindik ez dela ebatzi diru-laguntza jasoko duen ala ez.

IKUSI DA.- Aipatutako obra 2016 eta 2017 ekitaldietan zehar exekutatu dela, eta honako zenbateko hauek dagozkiola:

- 2016 ekitaldian egin beharreko obra: 42.350 € (BEZa barne)
- 2017 ekitaldian egin beharreko obra: 111.512,99 € (BEZa barne)

IKUSI DA.- 2016ko aurrekontuan, 312.601.003 aurrekontu-aplikazioak kreditu nahikoa eta egokia duela ekitaldi horretan obra kontratatzeak lekarren gastuari aurre egiteko, bai eta horri egotzi dakizkioken soldaten gastuei aurre egiteko ere.

AINTZAT HARTU DA.- Honako hauetan xedatutakoa: Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Araua, Sektore publikoko kontratuei buruzko Legearen testu bateratua onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua eta Tokiko araubidearen oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea.

Udalak, 2016ko urriaren 20ko Ohiko Osoko Bilkuran,, honako hau **ERABAKI DU** aho batez:

Lehenengoa.- Onestea kredituak erreserbatzeko konpromisoa, 2017 ekitaldian honako obra honen kontratua finantzatzeko: “Luiaondoko 3. poligonoko 1333. partzelako erabilera publikorako jarduketak”.

ETORKIZUNEN EKITALDIA	KREDITU ERRESERBA
2017	111.512,99 €

Bigarrena.- Obra horren Finantza Plana onestea. Honako hau da:

OBRAREN KOSTUA, GUZTIRA	EUROAK
Obraren exekuzio materialaren aurrekontua + BEZa	153.862,99 €
Soldaten kostua guztira + BEZa (proiektua idaztea, obra zuzentzea, exekuzioa zuzentzea eta segurtasunaren eta osasunaren arloko koordinazio-lanak egitea)	15.367,00 €
GUZTIRA	169.229,99 €

FINANTZAKETA-BALIABIDEAK, GUZTIRA	EUROAK
Foru Planaren bidez onetsitako diru-laguntza	94.718,03 €
Soldatak ordaintzeko Foru Planaren aurreikusitako diru-laguntza	7.683,50 €
Udalaren beraren baliabideak	66.818,46 €
GUZTIRA	169.229,99 €

13.- Eskaerak eta galderak.

- Gentza jaunak (EAJ-PNV) adierazi du dagoeneko hasi direla Sierrako hornidura-obrak exekutatzeko. Halaber, esan du Aialurrek egindako Kudeaketa Planaren kopia bana eman zaiela taldeei, eta monografia gisa landuko dela gaia sailaren batzordean.

Gainera, gogorarazi du mezu elektronikoko bat igorri zaiela Berdintasun Sailaren prestakuntzaren berri emateko. Zinegotzietan ahalik eta lasterren erantzuteko eskatu die, prestakuntza antolatu ahal izateko.

- Lauren jaunak (BILDU) esan du jakin dutela ADIF obrak egiten ari dela Amurrioko geltokian, eta badirudiela aurrerago Aretan eta Ugaon ere egingo direla. Gehitu du, lehenago ere esan dutenez, premiazkoa dela Luiaondoko geltokian irisgarritasuna errazteko obrak egitea, eta guztiak horrekin ados zeudela. Hori dela eta, gobernu-taldea ADIFekin bildu dadila eskatu du, Luiaondoko geltokian dituzten planei buruz galdetzeko.

Iñigo jaunak (EAJ-PNV) erantzun dio bilera bat egingo dutela haiekin, irisgarritasunaren, aparkalekuaren eta txartel-makinen gaiak lantzeko. Aurrerago, bilera horren berri emango da dagokion batzordean.

- Esteban jaunak (Bildu) aipatu du arazo bat izan dutela geolokalizazioarekin osasun-zerbitzuei dagokienez. Baliteke anbulantziaren arazoa izatea, baina komenigarria litzateke segurtasun-sistemei ohar bat helaraztea, esanez geolokalizatzaile bat dagoela, erabil dezaten.

Gentza jaunak (EAJ-PNV) erantzun du dagoeneko bidali dutela, baina ez dakiela zein diren komunikazio-protokoloak anbulantzien zerbitzua ematen duten enpresekin. Jakinarazpen-lana egina dago, baina zerbitzua erabiltzen ez badute, guk, Udaletik, ezin dugu ezer egin.

Eta jorrazteko beste gairik ez dagoenez, alkate-udalburuak amaitutzat eman zuen bilkura, hemeretziak eta hogeita hamabost minutu direnean, eta jorratutakoa eta hartutako erabakiak jasota geratzeko, nik, idazkari gisa, fede eman dut, Arespalditzan, bi mila eta hamaseiko urriaren hogeian.

OE
ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Sin.: Naiara Lazpita Marcos.